



Andoaino Udala



Kultura Loratzen prozesua abiatuko du aste honetan Udalak kultur eragileekin batera

- **Kulturak gure herrian bizi duen egoeraz hausnartu eta etorkizuneko bide-orria marraztea izango da helburua**
- **Prozesua asteazken honetan hasiko da, hiru8 saio izango dira guztira eta herriko kultur eragile guztiak daude gonbidatuak.**

Andoainen, 23-11-06.- Kultura arloan, Bastero Kulturgunearen 20.urteurrenak markatu du ikasturte eta agintaldi hasiera; mugari horrek bazuen ospatua izateko adina garrantzia, ez baitu horrelako proiektu batek egunero bi hamarkada betetzen.

Udal gobernua balorazio positiboa egiten du igaro diren ekimenez, batez ere, iragan ostiralean elkarlanean antolatu zen ekitaldiaz; herriko eragile, talde eta norbanakoak ikusi ahal izan genituen oholza ganean, ariketa kolektibo baten bitartez, ospakizun eta jai giroan.

Orain berriz, ospakizun aldia igarota, egunerokora itzultzea dagokigu, eta egunerokoa aurkitzen dugun errealitateari eustea. Azken boladan aldaketa handiak izan ditu gure jendarteak; pandemiak, zalantzarik ez, molde eta ohitura berriak ekarri ditu, eta Kultura arlotik ezinbestekoa ikusten da bizipen berri horiei erreparatzea. Ez modu isolatuan, noski: Kultura arloko langileez gain, errealitate hori euren azaletan bizi dute egunerokoa lanean diharduten kultur eragile, talde eta norbanakoek. Horregatik, eurekin elkarlanean, ariketa kolektibo bat abiatuko du aste honetan Andoaino Udalak: **Kultura Loratzen** deituko da, eta hausnarketarako, eztabaidarako eta proposamenak biltzeko foro bat izango da.

Helburua da guztion artean irakurketa partekatua gauzatzea, etorkizunean gure herriko kultura arloko bide orria zein izan beharko lukeen marrazteko xedez. Izan ere, sustrai sendoak dituen lore baten modura hazten ikusi nahi dugu kultura gure herrian, jakitun izanik ez dela alde bakarreko lana, ezinbestekoa dela inplikaturako eragile guztien elkarlana. Horregatik deituko zaio prozesuari Kultura Loratzen, **loratze prozesuan dagoen edo loratze prozesuan ikusi nahi dugun arloa delako kultura.**

Prozesurako irudi bat ere sortu da berariaz, Nerea uralde herriko artistaren kargu joan dena.

Prozesua asteazken honetan hasiko da, azaroaren 8an; hiru saio izango dira guztira, eta herriko eragile kultural guztiak daude gonbidatuta.